

eurodimentsioa

**irakaslearen
gida**



hezkontzan



**Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



0.- Aurkezpena

AITZINSOLASA: Europartasuna gogoan	4
------------------------------------	---

1.- Europa zer den

• Sarrera	6
• Europaren irudikapenak eta gizarte jakintzak	7
• Europa eta Historia:	8
- Europar historiaren ildo nagusiak	8
- Europar Batasunaren historia	9

2.- Eurodimentsioa

• Hezkuntzaren eurodimentsioa:	12
- HED hedatzeko pausoak	12
- Hezkuntza-sistema aunitz bateratzeko bidean	13
- Mugikortasuna eta trebetasun berriak	14
• Hezkuntza eta hiritartasuna:	15
- Hiritartasunaren oinarritzko alderdiak	15
- Hiritartasuna eta identitatea	16
- Hiritartasun aktiboa	17

3.- Hezkuntza-praktika

• Sarrera	20
• Ikastetxearen hezkuntza-proiektua	21
• Europako programak, proiektuak eta ekimenak	22
• Curriculumak	35
• Baliabideak:	39
- Informazio tokiak	40
- Internet	42
- Argitalpenak	67

4.- Eranskinak

• 1. eranskina: Europa zer den	73
• 2. eranskina: Europa eta gizarte jakintzak	77
• 3. eranskina: Hiritartasuna eta identitatea	79
• 4. eranskina: Hiritartasun aktiboaren orientabideak	81
• 5. eranskina: Programak, proiektuak eta ekimenak	86



AITZINSOLASA: EUROPARTASUNA GOGOAN

Europar Batasuna, dirudienez, ezinbesteko ibilbide dugu etorkizunera begira, bai ekonomiari dagokionez, bai bestela ere, gizarte zein politika arloetan.

Aspaldi honetan, beraz, europagintzan ari gara. Prozesu horren jatorri ekonomiko eta politikoa gehienbat ezezaguna izan da hiritarrentzat eta haiek parte hartu gabe egin da. Denbora luzea igaro da hiritarrak konturatu arte europagintzan aktiboki jardun dezaketela, nahiz eta haien zeregina zein den argi ez jakin. Alde batetik, kalkulatu denez, europar erakundeen aginduek beste erakundeen erabakien %70i eragiten diote (Jürgen Habermas “Why Europe needs a Constitution” in www.newleftreview.net/PDFarticles/NLR24501.pdf Bertan gaztelaniaz ere badaukazu), eta bestetik, Batasunaren aurrekontuek, (BPGd-aren zati txiki bat izan arren) oso garrantzitsuak izaki, eragin zuzena dute europarron eguneroko bizimoduan.

Edozelan ere, EB Europa osoa ez dela kontuan hartuta, alde batetik, historiagile gara, europar erakundeak sortzen eta antolatzen ari garen neurrian, eta, bestetik, irudigile gara, Europa (izan/izango) denari buruz gogoeta egiten dugun neurrian, jakitun egon behar baitugu europagintzan oso interes eta indar ezberdinak ari direla elkarren kontrako lehia bizian.

Zentzu horretan, europartasunaren kontzientzia orokorra europagintzaren motor nagusia izan daiteke. Helburua Europa asmatzea da, hiritarrok, europartzen garen heinean, Europaren benetako batasunaren bultzatzaile nagusi izan gaitezten (Felix Etxeberria “Políticas educativas en la Unión Europea” Bartzelona, 2000. 14. eta 17. orr.).

Europar Batasunaren proiektuak (egia esan, edozein proiektuk, bat baino gehiago baitago) aurrera egiteko europartasunaren kontzientzia sortu, bereganatu eta aktibatuz beharko dute kontinente honetako herritarrek.

Zehatzago esanda, Batasuna egin dadin eta arrakastatsua izan dadin nolabaiteko homogeneotasuna eta kontzientzia behar dira, kontuan hartuta Europaren ezaugarriak nabarmenetako bat dibertsitatea dela.

Hortaz, europar kontzientzia eratzea erabakigarria da, egin den eta egiten ari den europar erakundetze ekonomiko eta politikoari, benetako Batasuna izan dadin, falta zaizkion bestelako osagaiak eransteko, ezinbestekoa baitirudi sentimenduzko batasun- eta atxikimendu-nahiak.

Orain arte eskolak ezikusiarrena egin du aldakuntza horien aurrean, nahiz eta aldakuntzok hain sakon eta erabakigarri izan. Baina orain denek esaten digute Europa irakatsi behar dela, hiritar europarrak garela, hala sentitu behar garela, gure ikasleak ere europar hiritarrak badirela eta era horretara jokatu behar dutela.

Eta hori guztia gutxi balitz, geuri, irakasleoi, egokitzen digute zeregin funtsezko eta korapilotsua hiritarren Europa berria sortzeko prozesuan. Arazotsua da, ez baita erraza kolektibitate-atxikimendu berria sortzea, hain zuzen ere, zehazki definitu gabeko patu berriak eska lezakeen kidesun-sentimendua sortzea. Eta hala ere, funtsezkoa da, gaur egun Europa irakastea, gauzak doazen moduan, ezinbestekoa baita.

Hortaz, esandako guztiagatik, gida hau proposatzen dizugu